

## Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa Cumulus Sarean sartu da

2007/07/19

Joan zen ekainean, Cumulus Elkartearen urteko Batzarra ospatu zen Schwäbisch Gmünd-en (Alemania). Elkarte hau, mundu mailako ospe handiko diseinu eskolek osatutako sare bat da. Batzarrean, sare honetako kide berriak aukeratu zituzten eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa izan zen aukeratuetakoa bat.

Cumulus sarea 1990ean sortu zen, unibertsitateen arteko elkarlanaren ondorioz, horien artean: Helsinkiko Arte eta Diseinuko Unibertsitatea, Londresko Royal College of Art, Austria, Alemania, Holanda eta Danimarkako Unibertsitateak. Sare hau unibertsitateen arteko ezagutza-transferentziaren bidez, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko asmoz sortu zen.

2001ean sare hau elkarte bihurtu zen, eta 2007an, 6 kide izatetik 124 kide izatera pasa dira. Gaur egun, 40 herrialdeetako kideak daude: Brasil, Kanada edo Koreakoak besteak beste.

Urtero elkarteak diseinuarekin erlazionatutako gaiak azaltzeko hitzaldiak antolatzen ditu sareko kideek elkarren artean ezagutza, ideiak eta gogoetak trukatzeko. Baita, baliagarriak izan daitezkeen kontaktuak sortzeko, bai ikasketen esparruan baita proiektu eta ikerketaren esparruan ere.

GEParen ikuspuntutik, sare honetako partaide izateak Eskolako Diseinu Industrialari ate berriak zabaldu dizkio. Batetik, gure ikasleek askoz aukera gehiago izango dituztelako atzerrira joateko hemen jasotzen dituzten ikasketak osatzera; bestetik, atzerriko influentziak Arrasatera heltzeko bide berri bat zabalduko duelako; eta azkenik, mundu mailan Mondragon Unibertsitatearen lana ezagutzera emateko aukera biribila delako.



urteroko CUMULUS asanblada